

« Cancon-etik Cancun-erat » Deialdia

TRANTSIZIO EKOLOGIKO ET SOZIAL BATEN ALDEKO DEIA 2010eko ABENDUAREN 4an, LARUNBATEAN

Cancunen, NBE entseatuko da hats berri baten ematera klima aldaketari buruzko elkarrizketetan, Copenhagueko gailurraren porrotaren ondotik, hor eduki biziki mugatua zuen bukaerako «akordioa» 138 herrik baizik ez zuelarik izenpetu – porrota negoziaketei dagokienez, baina arrakasta mobilizazio mailan: klima eta ingurumen justiziaren aldeko mugimendu internazionala sortu da Copenhaguen, 50 000 pertsona bildu dituen kontra-foro a eta karrika manifestaldien inguruan.

2010eko apirilean Cochabamban 30 000 pertsona bildu dituen herrien gailur baten aldeko bolibiar deialdiaren ondorioz, klimari buruzko nazioarteko akordio zuzen, anbiziozko eta zinez bortxazkoa lortzeko eskakizunak biltzen dituen testu bat burutua izan da. Ekimen honek alternatiba sinesgarriak ekartzen ditu NBE-ren negoziaketetan, Cochabambako proposamenak negoziaketan sartu dituzten neurrian. Herrien gailur honek, tokiko ekimenetan oinarritzen den nazio arteko hiritar mugimendu baten sortzeko garrantzia eta behar gorria erakusten du, abian diren elkarrizketetan pisu bat izateko gisan. **Helburu honekin bat eginez, Via Campesina laborarien internazionalak "Mila Cancun" egiteko deia zabaldu du mundu guzian.**

Kari horretara, Attac, Confédération Paysanne, les Amis de la Terre eta Bizi!-k Lot et Garonneko Cancon herrian elkartzera deitzen dute abenduaren 4an, larunbatarekin.

Honen helburuak:

- ☐ erakustea tokiko mailan, krisi ekologiko eta klimatikoari erantzuteko eramanak diren esperientziak eta borrokak garraio, energia, eraikuntza, laborantza, industria, finantza, lan, kontsumo eta lurralde antolaketa arloetan;
- ☐ justizia klimatikoaren aldeko mugimendua obratze zehatzetan errotzea;
- ☐ mugimendu herritarrak eta sozialak mobilizatu heldu diren hitzorduei begira, Johannesburg 2011n eta Lurraren gailurra (RIO+20, 2012ko udaberrian), G20-tik pasatuz, Frantzian iraganen dena 2011ko azaroan;
- ☐ orroitaraztea «aterabide faltsuek» (nuklearra, agro-erregaiak, etab.) ingurumena mailan zernahi arazo sortzen dituztela isurkinen ttipitzean ez dutelarik parte hartzen.

Lehen izenpetzaileak : AITEC, les Amis de la Terre, ATTAC, Action Consommation, BIZI !, CADTM, Collectif Français contre l'Irradiation des Aliments, Combat Monsanto, la Confédération Paysanne, Coordination contre le projet d'aéroport de Notre Dame des Landes (acipa.free.fr), ECOPOL, Faucheurs Volontaires d'OGM, F.S.U., Greenpeace Bordeaux, Horizon Vert, Réseau Action Climat -France , Réseau Sortir du Nucléaire, Ruptures, Sud Étudiant, association TACA, Union Syndicale Solidaires, Urgence Climatque Justice Sociale.

Sustengatzen dute : Europe Écologie-Les Verts, FASE, les Alternatifs, NPA, le Mouvement des Objecteurs de Croissance, le Parti de Gauche, Les Jeunes Verts, Gauche Unitaire.